

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2011ko apirilaren 7a. VIII. urtea. 2.206. zenbakia. [www.tolosaldea.hitza.info](http://www.tolosaldea.hitza.info)

## Eskualdean eragin zuzena izango duen greba deitu dute

Apirilaren 18an, 19an eta 20an grafikagintzako langileak kalera deitu dituzte; LAB, ELA eta CCOOek Adegiri «jarrera immobilista aldatzeko» eskatu diote ◦2

## Saiazeko adinekoen eguneroko bizitza filmatu dute

Bidegoian, Albiztur, Beizama eta Errezilgo gizarte zerbitzuek sustatu dute 'Iragana eta oraina' izeneko ikus-entzunezkoa; lehen emanaldia bihar izango da Iriarte jauregian ◦6

## Leitzako Herri Krosean zazpi maila egongo dira

Aurrera Kirol Elkarateak antolatu du larunbateko lasterketa, udalaren eta merkatarien laguntzarekin; lehen korrikalariak, benjaminak, 16:15ean irtengo dira ◦7



## → Nañarrirako 75 auto motorrak berotzen hasi dira.

Irurako Ikastolak IV. Nañarri Rallysprinta antolatu du etzi, hilaren 9an; aurkezpen ekitaldian, besteak beste, Ander eta Angela Vilariño, Txus Jaijo, Aingeru Castro eta Iñaki Alberdi Alegiako irteeran izango direla esan dute antolatzaileek. ◦4



GAUR da zozketan izena emateko azken eguna! animatu!



HITZAK harpidedunen artean **Korrikaren lekukoa eramatea** zozketatuko du

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAK kilometro bat erosi du aurtun ere Korrikan. Lekukoa eramatea harpidedunen artean zozketatuko dugu.



Tolosan • Apirilak 13 • asteazkena  
08:00etan



saria eskuratzeko deitu: **943-65 56 95** harpidedun kodea eskura duzula  
Jasotako dei guztien artean zozketa egingo dugu. Saridunaren izenak Apirilaren 8ko egunkarian.

# Grafikagintza grebara deitu dute ELA, LAB eta CCOO

Adegiren «immobilismoa» salatu dute, eta beste sektore batzuetan lortu dutena onartzeko eskatu diote patronalari

Apirilaren 18, 19 eta 20rako egin dute grafikagintzako sektoreko greba deialdia

## Itzea Urkizu

Gipuzkoako grafikagintzako langileak grebara deitu dituzte ELA, LAB eta CCOO sindikatuek, datorren apirilaren 18, 19 eta 20rako.

Greba egitearen arrazoi nagusia Adegiren enpresaburuen elkartearen «immobilismoa» dela salatu dute sindikatuek: «Adegiren jarrrera aldatzen ez dela ikusita, hiru greba egun horiek deitu ditugu».

Gure eskualdearen kasuan, Adegiren patronalaren eta sindikatuen arteko desadostasunetik sorturiko grebak, hainbat enpresari eta langileri eragingo die, hala

nola: SAM, Unipapel, Antalis, Borobil, Artes Graficas Laga, Mandriles Cicarsa, Corenso, Cartonajes Limousin, eta abar; neurri eta izaera askotariko grafikagintza enpresak daude Tolosaldean. Sektorearen eragina handia dela ikusita, sindikatuek langile askok erreakzionatzea espero dute: «kalera ateratzeko hautua egingo dute langile askok».

## Akordio batera iritsi ezina

Iazko udaberrian ere bost eguneko greba egin zuten grafikagintzako sektorean, eta oraindik ez dute Adegiren patronalarekin adostasun batera iristerik lortu. Sindi-



Iazko ekainean ere, kalera irten ziren eskualdeko grafikagintzako langileak. A. IMAZ

katuek, beren aldetik, akordio bateratu bat lortzeko beren nahia «argi eta garbi» utzi dutela diote, eta Adegik borondate bera erakutsi ez izana salatu dute: «Adegik ez du determinazio bera erakusi, inondik inora». Bide beretik, hain zuzen enpresaburuen elkarteak, 2010eko abenduan egindako eskaintza berarekin erantzun izana gaitzetsi dute ELA, LAB eta CCOOeko arduradunek.

Alde batetik, sindikatuek soldata igoera eskatu dute, KPIare-

kin eta urte bakoitzeko 0,5eko igoerarekin. Horrez gain, ezgaitasun iragankorren kasuan, oporrak izanez gero, langileak opor egun horiek aurrerago gozatzeko aukera izatea nahi dute; honek 2010etik 2012ra bitarte indarrean jarraitzearen alde egingo dute ELA, LAB eta CCOOek.

Bestalde, Adegiren proposamena, 2010 eta 2011ko soldatak ez igozteza da, eta 2012 eta 2013an, grafikagintzako langileei, KPIaren igoera aplikatzea. Era berean,

urte osoan zeharreko jardunaldian 59 ordu gehiago egin behar litzukete lan sektoreko langileek, eta aipaturiko jardunaldia, modu irregularrean banatu nahi du Adegiren patronalak.

Apirilaren 18, 19 eta 20ko greba egunekin, Adegiri «arduraz joka dezala» eskatu nahi diote sindikatuek, eta beste sektore batzuetan balio izan duen proposamena, grafikagintzaren sektorerako ere onar dezala, «immobilismo hori alde batera utzi».

## → Laburrak

### Hautesle zerrenda ikusgai izango da udal bulegoetan

**BERASTEGI** | Udala eta Batzar Nagusietarako datorren maiatzaren 22an izango diren hautesle zerrenda ikusgai izango da, apirilaren 4tik 11ra bitarte, udal bulegoetan, 09:00etatik 13:00era. Bestalde, etxe etxe banaturiko errolda txarteletan norbere datuak ongi jarrita dauden begiratu behar da.

### Posta bidez bozka emateko PSEren egoitzan

**TOLOSA** > Datorren maiatzaren 22ko hauteskundeetan bozka posta bidez eman ahal izateko beharrezkoak diren argibideak emateko, PSEren Tolosaldeko egoitza zabalik izango da, egunero, datorren maiatzaren 12ra bitarte. Egoitza Gorosabel kaleko 33 eta 35. zenbakietan dago, eta bertaratuei, botoa posta bidez emateko egin beharreko urratsen berri emango zaie. Posta bidez bozka ematen dutenen botoak guztiz anonimoki izango dira, eta berdin-berdin zenbatuak.

## Tolosaldea IKT ongi aritu da infantil mailako Euskadiko txapelketan

Hamalau igerilariren artean, hamahiru domina lortu zituzten eskualdeko igerilari gazteek

### I. Urkizu

Pasa den asteburuan, Tolosaldea Igeri Kirol Taldeko gazteek lortu handia egin zuten. Irumen ospatu zituzten Euskal Herriko Igeriketako Infantilen txapelketan, Tolosaldea IKT-ko hamalau igerilari parte hartu zuten. Banakako probetan, Idoia Alonso eta Ane Gonzalez Euskadiko txapel-dun izan ziren bizkar estiloko probetan. Era berean, Javier Valdiesok, bi domina lortu zituen, eta Imanol Ezeiza, Beñat Bidaola eta Iñigo Alkorta igerilariak ere brontzezko domina bana eskuratu zuten.

## Irudia >



## TAK-EKO NESKAK IRABAZLE

TAKeko arraunlariek asteburu bikaina osatu zuten pasa den apirilaren 2 eta 3an, Gipuzkoako Batel Ligari dagokionez. Etorrizuneko mailako neskek Gipuzkoako Batel Liga irabazi zuten, eta hauekin batera, infantil eta kadete mutilek brontzezko hiruna domina eskuratu zituzten. Absolutu mailako neskek, berriz, zilarrezko domina irabazi zuten Mutrikuko uretan. Jubenil mailako mutilek bosgarren postua lortu zuten. HITZA



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



2007an Arrautzaren festa egin zuten Aste Santuetan; Martin Berasategi sukaldaria ere Tolosan izan zen. HITZA

# Aste Santuetan karakol jate erraldoia antolatu dute Trianguloa plazan

Hilaren 21etik 25era karakolak dastatzeko aukera egongo da herriko jatetxe eta tabernetan

**Asier Imaz** Tolosa

Aste Santuetan Tolosan gastronomiari lotutako eskaintza prestatu dute. Bertan geratzen direnek nahiz bisitariek, oraingoan, karakolez edo barraskiloez gozatzeko aukera edukiko dute.

Beste leku askotan bezala, Tolosan karakolak jan ohi ziren Ostegun Santuan. Ohitura hori aintzat hartu eta berreskuratu asmoz, apirilaren 21etik 25era karakolak dastatzeko aukera izango da herriko taberna eta jatetxeei esker.

Udaletik azaldu dutenez, «Tolosak aspaldi erabaki zuen Slow Food mugimenduari bat egitea, eta ekimen honek ere zuzenean lotzen gaitu larunbateroko azokak oinarrian duen filosofia horretara. Hori dela eta, beste behin ere gure azokara gonbidatzen ditugu herritarrek, kasu honetan gainera, karakol saltsa la-saitasunean gozatzera!».



Aste Santuetako izarra: karakola plateran. HITZA

## 10.000 karakoletik gora

Bost egunetan zehar hainbat ekitaldi izango dira, eta guztietan nabarmendu beharrekoa Trianguloa plazan egingo den karakol jate erraldoia izango da.

Taberna eta jatetxeek 10.000 barraskilo baino gehiago prestatuko dituzte goizean zehar, eta ondoren horiek herritarren artean banatuko dituzte. Bestalde, herriko hainbat tabernak bat egin dute ekimenarekin, eta horregatik, pintxoak euren ardoaz lagundurik ezohiko prezioan dastatu ahaliko dira.

Era berean, hainbat jatetxetan Aste Santurako bereziki prestatutako menuaz gozatu ahaliko da. Honek ere ezohiko prezioa izango du, eta plateren artean barraskiloak aukeratu ahaliko direla azaldu dute Tolosako Udaletik.

Bestalde, nabarmendu larunbateroko azokak ez duela hutsik egingo Aste Santuan. Gainera, bertan ere karakola protagonista izango da. Beraz, ekitaldi erakargarri ugari dituzte zain Tolosan geratzen diren herritarrek nahiz udalerrira bisitatzerako datozen turistik.

## → Laburrak

### Arantzazuko Ibilaldira joateko izen ematea

**TOLOSA** ▶ Arantzazuko Ibilaldia hilaren 16an, larunbatean, izango da aurten, Elizbarrutiak antolatuta. Bertara joateko izena jada eman daiteke parrokietan. Autobusa, egun horretan, 07:55ean aterako da San Frantzisko elizaren aurretik. Txartelak 13 euro balio ditu.

### Balkoi lehiaketaren epaileen eskertza

**TOLOSA** ▶ Maite Sanchez eta Juan Bautista Aranzabe *Mate* Amarozen Inauterietako balkoi lehiaketan epaile moduan aritu ziren. Bertan jaso zuten laguntza eskertzeko, eskerrak eman nahi izan dizkie lehiaketaren antolatzaileei, eta bereziki Guillermo Benito Huarteri.

### Felipe Gorritiri oroigarri bat jarriko diote Tafallan

**TOLOSA** ▶ Etzi La Tafallesa eta Tolosako Musika Bandek kontzertua eskainiko dute Tafallan, 20:30ean. Kalejira 18:30ean hasiko da eta amaitzean Felipe Gorritiri bizi izan zen etxean oroigarri bat ipiniko dute.

### Azalaren zainketarako tailerra, hilaren 12an

**TOLOSA** ▶ Minbiziaren Aurkako Elkartek azalaren zainketaren inguruko tailerra antolatu du hilaren 12an, asteartean. Doako tailerrak plaza mugatuak ditu, ondorioz, 943 65 21 43 telefono zenbakira deitu beharko da. Emeterio Arrese plaza 2 helbidean egingo da tailerra, 12:00etatik 13:00etara.

### Topic-eko dendaren eta museoaren ordutegia

**TOLOSA** ▶ Topic-ek udako ordutegi berria aurkeztu du, bai museoak eta baita dendakoa ere. Ekainaren 1etik 30era, Aste Santuak barne, 11:00etatik 14:00etarako eta 16:00etatik 21:00etarako izango da. Asteburu eta jai egunetan, 21:00ak arte egongo dira zabalik. Neguko aldiz, 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara izango da. Asteburu eta jai egunetan 20:00ak arte.

### Gaur Zine foruma Leidor aretoan

**TOLOSA** ▶ Zine forumaren barnean *Las Zapatillas Rojas* ikusitako aukera egongo da Leidorren, gaur, 19:15ean eta 21:45ean. Bihar, *Mugaldekoak* eskainiko dute 22:30ean.

## Korrika 17ren azken egunerako laguntza behar dute

Apirilaren 17rako 30 laguneko lan taldea osatu nahi dute; izena Andoaino AEKren egoitzan eman daiteke

**Asier Imaz**

Korrika 17 gaur hasiko da Trebiñun eta apirilaren 17an amaituko da Donostian. Aurten, beraz, aspaldiko partez Gipuzkoan amaituko da. AEKtik esan dutenez,

«gipuzkoarrei korrika amaiera ahalik eta arrakastatsuen eta ahalik eta ondoen aterakin dadin lan egitea egokitu zaie».

Andoaino eta Tolosaldeko AEKri apirilaren 17an montaia lanetan aritzea egokitu zaio eta lanaldia goizeko 08:00etan hasi eta eguerdiko 12:00etan amaituko da. Horretarako 30 laguneko lan taldea osatu behar dute eta laguntza bila dabilta.

Laguntza eman nahi duen orok informazio gehiago nahi izanez gero edota zuzenean laguntza emateko izena eman nahi duenak Andoaino AEK euskaltegiaren egoitzara joan beharko du. Hurrez gain, [andoain@aek.org](mailto:andoain@aek.org) helbidera ere idatz dezake edo bestela, 943-59 17 04 telefonora dei dezake.

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Apartamentua.** Jakan. Aukera paregabea. Erdigunean apartamentu guztiz ornitua, garaje eta trastelekuarekin. Deitu 667 49 25 57 zenbakira.

■ **Etxebizitza.** Bidegoian, Goiaz. Prezio berria! Aukera paregabea! Eraikuntza berriko etxe atxikiak salgai. Portxe, terraza

eta jardinarekin. Estreinatzeke, material oso onak. Iskina, 348.500 euro eta erdiko, 330.500 euro. Interesatuak, deitu 943 30 40 38 telefono zenbakira.

### GARBIKETA

■ **Auxe Garbitasunak.** Alfonbrak, bulegoak, etxeak,

eta antzekoak garbitzeko prest gaude. Interesadunek inongo konpromisorik gabe dei dezatela telefono zenbakira: 638 94 46 04 (Gurutze).

### LANA

■ **Zaintzailea.** Emakumea behar dugu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko; goizez

izango litzateke. Interesatuak deitu 943 67 05 70 telefono zenbakira, arratsaldean.

### BESTELAKOAK

■ **Txakur txabola.** Anoetan, zaxkur txabola baten bila nabil. Erosteke edo alokairuan hartzeko. Interesatuak deitu 680 10 39 59ra.





# 75 gidarik hartuko dute parte larunbateko IV. Ñañarri Rallysprintan

Irurako Ikastolak IV. urtez antolatuta du; 15:00etan Alegian hasiko da, eta helmuga Amezketan izango du

**Eneritz Maiz** Irura

Larunbatean izango da Irurako Ikastolak, Hondarribiko Sardara Motor Elkartearekin elkarlanean antolatzen duen Rallysprinta. 75 gidari izango dira errepidean lehiatuko direnak eta horien artean, izen handiko gidariek parte hartuko dute.

Aurten, berriro ere, norabidea aldatu diote rallyesprintari. IV. Ñañarri Rallysprinta Alegiatik Orendaingo bidean hasiko da, eta Orendaindik eta Abaltzisketatik pasatu eta gero, Amezketara jaitziko dira, helmugaratzeko. Guztira 10 kilometro eta 350 metro inguru dituen ibilbidea da, eta txapelketa orokorreko rallysprintik osoena eta interesgarria da.

Segurtasun aldetik hobekuntza zenbait sartu dituzte, babes gune berriak jarri. Irteera puntua ere, metro batzuk atzeratu dute, leku kontuengatik. Hutsuak eta hobekuntzak betetzen saiatu dira.

Inskripzio handia izan da, eta gustura agertu da Sardara Elkarte Jon Amiama. Lasterketa hau, Euskadiko Txapelketa hi-



Amiama Sardara Elkarteko kidea, Saizar Ikastolako zuzendaria eta Ifurrita antolatzailea, atzo aurkezpenean. MAIZ

rugarrena izango da. Eta aurten lehen aldiz, Nafarroako Txapelketa sartu da Ñañarri Rallysprinta.

Nesken artean, faborito bezala Irune Zubiaurre izango da, Amiamaren ustez. Eta iaz bezala, aurten ere, mutiletan Ander Vilariño izango da. Angela Vilariño ere errepidean izango da, eta momentu honetan, txapelketa liderra da.

Kontuan izan beharrekoen artean berriz, Aingeru Castro, Txus Jaio, Iñaki Alberdi,... izan ziren ai-

patuak. Eta ingurukoak direnak berriz, oso ondo ezagutzen dute-nez ibilbidea, azkar ibiltzen direla azpimarratu zuten.

## Egoera ekonomikoari begira

Aurtengoa laugarren urtea dute, eta rallya antolatzearen helburua, dirua biltzearena da. Ikastola berria egin zuten, eta eraikin berria egiteko eskatuak dituzten maila guzietan aurreratu erabiltzen dute, Ñañarri Rallysprintean ateratzen duten dirua.

Guzti honen atzean lan handia

dago, eta bezperan, egunean bertan edota hurrengo egunean, 200 lagun inguru ibiltzen dira. Sarrerak, aparkalekuak, muntai lanak edo garbiketakoak egin behar izaten dituzte.

Xabier Saizar ikastolako zuzendariak, «eskerrak» eman nahi izan zituen: ibilbidean dauden lau udalei, era batera edo bestera, bezperan, egunean bertan edo hurrengo egunean bolondres moduan lan egingo dutenei, ikastolako gurasoei, Irurako herritarrei eta inguruko herritarrei ere bai.

## ↓ Rallysprinta

### APIRILAK 9, LARUNBATA

■ **Errepide mozketak.** Larraitzko errepidea 12:00etan itxiko dute. Gainerako sarrerak, Alegia, Orendain, Amezketan edota Ikaztegietaoak 14:00etan itxiko dituzte.

■ **Hasiera eta amaiera.** 15:00etan emango zaio hasiera Rallysprintari Alegian. Eta helmuga, 20:00ak aldera Amezketan izango du, eta sari banaketa ere Amezketan egingo da.

■ **Sarrera.** 12 urtetik beherakoek doan izango dute sarrera, eta hortik gorakoek, 8 euro ordaindu beharko dute.

■ **Garraio publikoa.** Antolatzaileek, ikustera gerturatuko direnei, garraio publikoa erabiltzeko deia luzatu diete.

Eta Sardara Motor Elkarteari ere aipamen berezia egin zion, bereaiek gabe, guztia antolatzea ez zutelako posible izango. Eta laguntza eman dieten enpresa guztientzat ere, esker oneko hitzak izan zituen.

## Ander eta Angela Vilariño, Txus Jaio, Aingeru Castro, Iñaki Alberdi,... izango dira

Bukatzeke, guztie bertara gerturatzeke gonbidapena luzatu zieten, eta posible bada, garraio publikoa erabiliz joateko eskatu zieten. Etzizako, eguraldi bikaina iragarri dutela ere azpimarratu zuten, eta egun pasa polita izan daitekeela adierazi zuten.



# Loatzo Musika Eskolako Udaberriko emanaldiak entzungai

Musika instrumentuen entzunaldi ezberdinak prestatu dituzte; herri ezberdinetan izango dira bi astetan banatuta

## E. Maiz

Loatzo Musika eskolak, ikasleekin Udaberriko entzunaldiak prestatu ditu. Loatzoren Musika eskola duten herri guztietan izango dira. Lehena, Alegian izan zen asteartean, eta jarraian emanaldi ugari eskainiko dituzte.

Gaur, 18:00etan, Villabonako Musika Eskolan, gitarra entzunaldia izango da. Eta bihar ostirala, 18:00etan, Adunako plazan, dultzaineroek herritarren aurrean emanaldia eskainiko dute. Eta ordu bate beranduago, 19:00etan, baina Irurako Musika Eskolan,



Anoetako kontzertu bat. E. EZEIZA

saxofoi entzunaldia joateko aukera izango da.

Datorren astean ere izango dituzte eta hasteko, hilaren 11n, astelehenean, 18:00etan Villabonako Musika Eskolan, biolontxelo entzunaldia izango da. Eta ordu berean, Irurako Musika Eskolan, flauta entzunaldiaz gozatzeko au-

kera izango da. Asteartean, hilak 12, 19:00etan Alegiako Kultur Etxean, piano entzunaldia izango da. Eta egun eta ordu berean, Zizurkilgo Atxulondo Kultur Etxean, flauta entzunaldia eskainiko dute.

Egun bat beranduago, Ibarra, Irura eta Zizurkilgo izango dira. 18:00etan Ibararako kultur etxean, eskusoinu entzunaldia prestatu dute. 19:00etan, Irurako Musika Eskolan, gitarra entzunaldia izango da, eta Zizurkilgo Atxulondo, tronpetak, tronboia eta bonbardino entzunaldia izango da gerturatuta nahi duen guztientzat.

Eta Udaberriko entzunaldiekin amaitzeko, hilaren 15ean, 16:30ean, Villabonako Musika Eskolan, kantu entzunaldia eskainiko dute. Musika entzunaldi hauetara, herritar guztiak gonbidatuta daude.

## Herritarren ekarpenak herri programaren oinarri izango dira

Ezker abertzaleak herritarrei luzatutako inkestako emaitza guztiak jaso ditu, eta ezagutzera eman ditu

**Erredakzioa** Zizurkil

Zizurkilen, ezker abertzaleak, udal hauteskundeak gainean direla eta, herri programa osatzeko inkestak luzatu zizkieten herritarrei. Herritarren ekarpenak herri programaren oinarri izango dire-

la adierazi du ezker abertzaleak. Eta aurrerantz ere, zizurkildarrei dei egiten diete guztien artean Zizurkil hobeago baten alde lan egiten jarrai dezaten.

Inkestako emaitza guztiak jaso dituzte, eta parte hartu duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiete. Era berean, jaso dituzten emaitzen puntu garrantzitsuenak ezagutzera eman nahi dituzte, guztiak jakin ditzaten.

Zizurkildarren artean, alkate eta zinegotziek izan beharreko ezaugarrien artean, gardentasuna, hitzekoa izatea, gertutasuna

eta langilea izatea izan dira baloratuenak.

Herriko lehenetsuen artean berriz, etxebizitza, euskara, kultura eta zerga tasak lehenesten dituzte. Eta, inkesta bete dutenen artean, hamar herritarretik bederatzik udalarekin harremanak izaterakoan erabiltzen duten hizkuntza euskara da.

Gaur egungo udalak herritarrei helarazten dien informazioari dagokionez, %100ak nahikoa ez dela dio, eta informazio iturri nagusia kaleko komentarioak direla, adierazi dute. Baita ere, nahiz

eta maila baxuagoan izan, herritarrek, prentsa eta udaletxeko web orriaren bidez jasotzen dute informazioa.

Udalak herritarrei informazio orokorra modu eskasean eta gutxi helarazten diela salatu dute. Eta honen harira, udaletxeko arrekontuen eta AHT-ren inguruko informazioa zehatza eskatzen dute inkesta bete dutenek.

Galdeketa bete duten %100ak herri galdeketa egitea ezinbestekoa eta beharrezkoa dela adierazi dute. Udalak deituriko ekimentera herritarren parte hartzea ere oso baxua izan da. Horrela, inkesta bete duten hamar pertsonetatik hiruk bakarrik noizbait parte hartu dute ekitaldietan.

Balorazioa, «gora Zizurkil!» esanez amaitzen dute.

## Korrika eta euskara bultzatuz egun osoko festa antolatu dute

Larunbatean goizetik hasita dokumentala, sagardotegian bazkaria, triki poteoa eta konzertuak izango dira

**E. Maiz** Anoeta

Hilaren 13an pasako da Korrika 17 eskualdetik. Hori dela eta, Anoetan, larunbaterako, egitarau zabal prestatu dute.

11:00etan, DVD emanaldia egingo dute udaletxeko areto nagusian. Goiz osoan zehar korrika materiala salgai jarrita edukiko dute. 14:00etan, Sarasola sagardotegian bazkaria egingo dute. Eta bazkarira joan nahi duenak, Itzuli tabernan du zerrenda izena emateko, eta azken eguna gaur da. 18:00etan, triki poteoa egingo dute. 23:30ean Kontzertua izango da Anoetako Gaztetxean. Sermond's Durangoko taldea eta Luz de putas Donostiakoa izango dira taula gainean. Herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte jai honetan parte hartzera.

Aldi berean, apirilaren 13an, asteazkena, 06:45ean elkartuko dira plazan, Korrikara elkarrekin batzeko. Eta Anoetako Herri ikastolakoek korrika txikia egingo dute. Anoeta - Irurako zubitik abiatu eta Anoetan zehar korri egin ondoren txokolatada batekin amaituko dute ikastolan.

## Oteizaren sinesmen eta ideologiak taula gainean izango dira

Ion Martinezek antzezutako du 'Oteiza ezberdin gizartea' antzezlanaren Gurea Zine aretoan

**Eneritz Maiz** Amasa-Villabona

Jorge Oteiza eskultore oriotarrari buruzko antzezlanaren Ion Martinez aktoreak Villabonan antzezutako duena. Antzezlanaren egilea, idazlea, zuzendaria eta Jorge Oteizaren jarraitzaile sutsua denak, Oteizaren ikuspegi ez ohikoa eta ezberdina erakutsiko du Gurea Zine aretoko taula gainean.


Oteiza eta bere argiketariaren arteko harremana ikusiko da. Bi pertsonaia dira, eta biak, Ion Martinezek antzeztzen ditu; Oteizarena eta elektrizistarena. Oteizak gizarteari buruz zituen gogoetak kontatuko ditu, eta argiketariak gogoeta hauen aurrean bere pentsamenduak adierazten ditu.

Antzezlanaren euskaraz da gehien bat, baina Oteizak hitz egiten duen momentuan, gaztelerez egiten du. Martinezen hitzetan «bere pertsonaiari horrela, indar eta errealismo gehiago ematen zaio».

**Pentsamenduan lau ideia**

Oteizaren pentsaerak eta gizarte aldatzeko zituen ideiak dira gizarteari erakutsi nahi dizkionak. Asko jarraitu du Oteiza Ion Martinezek, eta bere bideoek, poesiek, ... «hunkitu eta ukitu» egin dutela adierazi du. Eta Euskal Herriko egoera, hizkuntza, kultura, ... jorratzen ditu.

Eskulturaren alorra ulertzea, oso zaila da, eta hori alde batera uzten du. Martinez, bere sinesmen eta ideologian oinarritzen da. Lau ideia nagusi ditu ardatz:



Ion Martinez aktore donostiarra bi pertsonaia antzezutako ditu. HITZA

irakaskuntza, gizartea, nola ikusten zuen kultura eta euskara. Euskaraz ez hitz egin arren, asko maite zuela euskara azpimarratu du.

Pentsarazteko antzezlanaren baina era berean, dinamikoa eta erraz ikustekoa. Gaur egun bizi garen gizartearen inguruan hausnarketa sortu nahi du, eta Oteizaren pentsamenduak gaur

egungo gizartearen oso erabilgarriak direla uste du.

Antzezlanaren ostean, eta beti egin ohi duen moduan, tertuliatxo egingo du pasta eta txokolatex pixka batekin. Eta herritarrek gerturatzea gustatuko litzaioke.

Antzezlan hau ikusteko azken aurreko aukera izango da, eta azkenik, maiatzaren 19an Donostiako Doka Antzokian izango da.

### Antzerkia

#### BIHAR, HILAK 8

- **Oteiza ezberdin gizartea.** Ion Martinez da aktore bakarra eta %70a euskaraz eta %30a gaztelerez egiten du. Elektrizista eta Oteizaren artean gizarte-ko gaiak jorratzen dituzte.
- **Noiz.** 22:30ean hasiko da.
- **Non.** Gurea Zine Aretoan.
- **Sarrera.** 5 euro ordaindu behar da; gazte txartelarekin, 3 euro.

Sagardo naturala Eguneroko sagardoa

**ISASTEGI** sagardotegia

Abilak Txiki Auzoa 23430 TOLOSA  
Tel 943 602 984 - Fax 943 602 632  
isastegi@isastegi.com  
www.isastegi.com

Erosi **HERRI URRATSEko jantziak** Euskalherrioplaza.com-en:

www.euskalherrioplaza.com

# Saiaz mankomunitateko adinekoen egunerokoa jaso dute bideo batean

Bidegoian, Albiztur, Errezil eta Beizamako adinekoek parte hartu dute 'Iragana eta oraina' ikus-entzunezkoan

**Imanol Garcia**

Landa eremuan adinekoen egunerokotasuna nolakoa den erakusteko, bideo bat grabatu dute Saiaz Mankomunitateko gizarte zerbitzuek bultzatuta. Bidegoian, Albiztur, Errezil eta Beizama herriak hartzen ditu mankomunitateak. Bihar egingo dute bideoaren lehenengo emanaldia, Bidegoiango Iriarte jauregian. Emanaldia itxia izango da: bertan izango dira grabaketan azaltzen direnak, gizarte zerbitzueta-ko langileak, udal ordezkariak eta Foru Aldundiko teknikariak. Aurrerago eskoletan emanaldiak egiteko asmoa azaldu dute gizarte zerbitzueta-rik.

Bi eguneko zentro daude Saiaz Mankomunitatean: Bidegoiango eta Errezilgoa. Bidegoiangoan, herrikoetz gain, Albizturko eta Beizamako adinekoak joaten dira. Adinekoak ez izan arren, ezintasunen bat dutenak ere egoten dira bertan.

## Landa eremua

Elena Rikondo gizarte langileak azaldu duenez, «Bidegoiango zentroa ireki zenetik, 2004. urtearen bukaeran, ikusi genuen bere funtzionamendua beste zentroen ezberdina izan behar zuela. Bestela, jendea ez zen etorriko, nahiz eta guki beharra zegoela ikusi. Lehe-



*Iragana eta oraina* bideoaren grabaketaren une bat. HITZA

neko urteak zailak izan ziren». Landa eremuan bizi direla da adineko horien berezitasuna. Rikondok dioenez, «Diputaziotik esan zuten eginez ikasiko genuela. Azkenean jendeari malgutasuna eman zitzaion orduetan. Ez genien behartzen egunero etortzea. Horrela ez zuten bere burua hain lotua ikusten».

Hain justu, eguneko zentroaren erabiltzaileen beharrak jasotzeko *Iragana eta oraina* proiektua martxan jarri zuten. «Guk zerbait ezberdina eskaini behar genien», dio Rikondok. «Ezin ginen joan programazio orokor baten, horrela gaizki egingo ge-

## Rikondo: «Eguneko zentroan jendeari malgutasuna eskaini zaio ordutegian»

nuen. Horregatik, pertsona bakoitzaren bizitza zein izan zen eta egun nola bizi ziren jaso genuen».

Gizarte zerbitzueta-ko informazio horretatik abiatu ziren, adinekoek zein jarduera mota eskaini zitekeen zehazteko. «Ikusi genuen denak gauz berdinak ez zituztela egin behar», azaldu du Rikondok. «Bakoitzak bere bizitza izan duela konturatzen ginen eta beraien denbora libre nola

bete beste era batera antolatu behar genuela». Proiektu horren baitan etorri da zentroko erabiltzaileen eguneroko bizitza jasotzen duen bideoa grabatzea, eta egitasmoaren izen bera jarri diote. Ikus-entzunezkoa Egoitz Pomaresek eta Lurdes Urbinak egin dute.

Landa eremuko bizimodua jasotzeaz gain, bideoa beste herri txikiakotako gizarte zerbitzueta-oso baliagarria izan daitekeela dio Rikondok: «Irukiek asko erakusten dute. Diputazioko teknikariak eta beste herri txikiakotako gizarte langileek modu zuzenagoan jasotzen dute hemengo lana».

## → Laburrak

### Elkarretaratzea, akten altxamendua dela-eta

**TOLOSALDEA** AHTren Hernialde-Zizurkil zatiko zundaketa lanak direla-eta, akten altxamenduak egiteko deitu dituzte lur jabeak egunotan: asteartean Zizurkilen, atzo Hernialden eta Anoetan, eta gaur Asteasun. Akten altxamenduen aurkako elkarretaratzea deitu dute gaurko, Asteasun, 09:00etan udaletxe aurrean.

### Barriolak ez du binakako finala atzeratuko

**LEITZA** Eskuz binakako txapelketaren finala apirilaren 17an jokatu da, Abel Barriola leitzarrak ez baitu finala atzeratuko. Medikuairenean izan zen atzo, zuntz haustura txiki bat baitu ezker hankako muskulur bikian, baina finalerako prest egongo dela azaldu zuen. Bilboko Bizkaia frontoian izango da finala.

### Nekazal jardueraren garrantzia jendarteratzen

**ZIZURKIL** Nekazal jardueraren garrantzia jendarteratzeko jardunaldia eskainiko du, gaur, IMK Fraisorok, *Nekazariak: osasun, paisaia eta kultura ekoizleak* izenburupeko jardunaldiaren bidez. 09:00etatik 14:00etara izango da topaketa, eta bertan, nekazariak beraien produktuak balio handiagoa eman ahal izateko eta tokiko produktuak kontsumitzearen garrantzia jendeari helarazteko erremintak aztertuko dira. Bestek beste, nekazaritzaren funtzioetan oinarritutako komertzializazio estrategiak landuko dituzte.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info) / Tel.: 943-65 56 95

**HILETAREN BALIOA Txina Inperiala**

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakoitzak bere neurrako hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazena da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

**902 402 900**

[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)



## Dj saioarekin emango diete hasiera ekitaldiz betetako asteburuari

Bihar, afari herrikoaia eta dj saioa izango dituzte; igandean, berriz, mendi irteera eta zikiro jatea egingo dute

**A. I.** Ibarra

Ekitaldi ugari antolatu dituzte asteburu honetarako, Ibarra. Alde batetik, bihar afaria eta dj saioa izango dituzte. Bestetik, mendi irteera eta zikiro jatea egingo dute igandean.

Bihar, dj saioaren aurretik afari herrikoaia egingo dute, 20:30ean, Xeplan. Izena Atarin, gaztetxean eta Subegin eman daiteke. Afari-rako eta dj saiorako sarrera 15 euro kostako zaie langileei, eta 12

euro langabetu eta ikasleei. Ondoren, Zigor dz-k eta Makala dj-k musika saioa eskainiko dute, gaztetxean.

### Mendia eta zikiro jatea

Igandean, Haitzetan Raju mendi taldeak eta Bai Euskal Herriari! herri ekimenak mendi irteera antolatu dute. 09:30ean irtengo dira plazatik, eta Gaztelura joango dira. Bi ibilbide egongo dira aukeran: laburra, haurrekin egiteko modukoa, eta luzea, gainerakoentzat. Eguerdian denek Gaztelun topo egingo dute, zikiro jatea egiteko. Arratsaldean, batzuk frontoian jolasean ibiliko diren bitartean, besteak zelaian etzanda egiteko aukera izango dute. Herritar guztiak gonbidatu dituzte egun pasara.

## Haurren autoestimuari eta heziketari buruz hitz egingo dute Areson

Guraso eskola gaur jarriko da martxan, 'Gure haurren autoestimua' izeneko hitzaldiarekin

**M. U.** Areso

Gaur Guraso eskola martxan jarriko dute Areson. Gizarte Zerbitzuak, guraso elkarteak eta eskolak parte hartu dute proiektu honetan. Eskolan bi gai landuko dituzte. Lehenengo hitzaldia gaur izango da, eta *Gure haurren autoestimua* izena du. Hitzaldia

eskolan izango da, 15:00etatik 16:30era. Hizlaria Edurne Epelde izango da, eta hitzaldiaren bigarren zatia hilaren 14an izango da, leku eta ordu berean.

Bigarren gaia haurren heziketarena izango da. Maiatzaren 5ean eta 12an, ordu eta leku berean izango dira hitzaldiak. Hizlaria Gabi Goia izango da.

### Korrika Txikia

Bihar, berriz, Korrika Txikia egingo dute eskolako haurrek, nahiz eta aurten Korrika ez den Aresotik pasako. Haurrak 15:00etan aterako dira eskolatik. Ondoren, askaria egingo dute.



Korrikariak herriko kale nagusitik abiatzen dira, eta plazan amaitzen dute lasterketa. ESTI EZEIZA

## XXXIII. Herri Krosa antolatu du Aurrerak, udalaren eta merkatarien laguntzarekin

Larunbatean, 16:15etan abiatuko dira benjaminak; jarraian, beste 6 kategorietakoak irtengo dira

**M. Ugartemendia** Leitza

Aurrera Kirol Elkarteak, Leitza-ko udalarekin eta merkatarien laguntzarekin, XXXIII. Herri Krosa antolatu du, larunbat honetarako. 16:15ean hasiko da, eta zazpi kategorietan edonork parte hartu ahal izango du.

Bi ibilbide daude, kategoriaren arabera. Benjaminak herriko kale nagusitik aterako dira, eta 800 metro egingo dituzte, plaza iristeko. Beste kategorieta-koak herriko kale nagusitik aterako dira, eta herrian 2.500 metro-

ko ibilbidean egin beharreko bueltak eginda, plazan amaituko dute lasterketa.

Irteerako ordu-tegiari dagokionez, 16:15ean benjaminak aterako dira. Alebin eta infantilak 16:30ean aterako dira. Kadete eta juniorrak 17:00etan, eta besteak 17:30ean.

### Izen ematea

Izena egunean bertan eman ahal izango da, Aurrera K.E. an 15:30etik 17:00etara. Aurretik ere eman ahal izango da izena. Horretarako inskripzio orria bete, eta 10 euro ordaindu beharko dira. Aurrera K.E. koek 8 euro ordaindu beharko dituzte. Benjaminak, alebin, infantilek eta kadeteek dohainik parte hartu ahal izango dute. [www.herrikrossa.com](http://www.herrikrossa.com) web orrian ere izena eman daiteke, 8 euro ordainduta.

Lasterketa hasi baino 30 minutu lehenago itxiko da izena emateko epea. Korrikariak proba aurreko egunetan beraien izena parte hartzaileen artean dagoen ziuertatu beharko dute. Eta baita, izenaren ondoan ordainketa egina duela agertzen den begiratu ere.

### Sariak

Sariei dagokionez, benjamin, alebin, infantil eta kadetei dominak emango zaizkie. Beste guztiak kamiseta bana jasoko dute.

Trofeoak kategoria bakoitzeko lehenengo eta bigarren sailkatuari, eta lehenengo leitzarrari, emango dizkiete. Diru sariak, berriz, sailkapen orokorreko lehen lau korrikariak jasoko dituzte; kategoriak kontutan hartu gabe. Sari banaketaren ondoren, arratsaldekoa egin ahal izango da.

## Ez ohiko udalbatzarako deialdia egin du udalak

Ez ohiko udalbatzaren bilkura bihar izango da, Batzar aretoan, 21:00etan; zazpi gai daude gai zerrendan

**M. U.** Leitza

Ez ohiko udalbatzarako deialdia egin du Leitza Udalak. Udaltza bihar izango da, 21:00etan. Zazpi gai daude eguneko gai ze-

rrendan: Leitzalarreko bidean harri-lubeta egiteko obraren finantziario plana aldatzea, Olaberriko zubia konpontzeko obraren finantziario plana aldatzea, Jose Deunaren eta Uharte Gotzaiari dagokien xehetasun azterlana hasiera batez onartzea. 1. go poligonoko 15. lur zatiari dagokien xehetasun azterlana hasiera batez onartzea, eta Jose Antonio Juanmartiñena Lasarte: hitzarmen transakzionalaren hasiera-ko onspena ematea.

## Azterlan baten arabera adineko biztanleek bizi kalitate ona dute

Gizarte langileek adineko pertsonen etxeetara joanda egindako galdeketeekin atera dute ondorioa

**M. U.** Ibarra

Ibarra Udalak eskatuta egindako azterlan batek ondorioztatzen duenaren arabera, Ibarra adineko biztanleek, bereziki baka-

rrik bizi diren gizon-emakumeak, bizi kalitate ona dute.

Azterlana adineko pertsonen etxeetan eginiko galdekete bitartez gauzatu da. Gizarte langileek gizon-emakume hauek dituzten gizarte harremanak, etxeko lanak egiteko moldatzeko era, edo eguneroko bizitza aurrera eramateko aurkitzen dituzten zailtasunak bezalako gaiak aztertutuzte.

Udalak eskaini diezaieketen zerbitzuei buruz duten ezagutza

maila ere aztertu dute. Honi dagokionez, «erantzunak positiboak» izan dira udalaren arabera. Jasotako emaitzek diote isolamendu larriak ez dagoela, eta abandonu edo pobrezia egoerako kasurik ez dela antzeman.

Beraz, ikerketaren arabera, gizatalde honek bizi kalitate ona du, eta beharrezko baliabideak ditu egunerokoa burutzeko. Hobe beharrezko alderdietako bat, etxebizitzetarako sarbidea hobetzeko eskari handia egotea da.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** www.tolosaldean.hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@iragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak**  
**S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k**  
**Bai**  
**Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**  
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketza, Anoeta, Areso, Belauntza,  
Berastegi, Elduain, Herrialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Bonsai eta suiseki bereziak ikusteko aukera, Topic-en

Amalur jardunaldiei esker zabalik dago Japoniako kultura, natura eta antropologia ezagutzeko aukera

**Rebeka Calvo** Tolosa

Egun gutxi geratzen dira Amalur jardunaldien ekitaldiei esker Japoniako kultura, natura, antropologia eta abar ezagutzeko. Izan ere, Amalur martxoaren 18an hasi zen, eta larunbatean, hilak 9, bukatuko da. Aurtengo jardunaldietan Japonia ezagutzeko parada dago, orain martxoaren 11ko lurrikara, tsunami eta hondamendi nuklearrarengatik, zori-tzarrez, horren bogan dagoen herrialdea.

### Betikotasunaren ikurra

Seigarren edizio honetan, urtero bezala, ekitaldi ugari antolatatu ditu Tolosako Ekinbide Etxeak, horien artean, larunbata arte Honbu Kenpo-Kai elkartearen eskutik, Topic-en, ikusi daitekeen bonsai eta suiseki erakusketa. Bonsaien artea orain dela bi mila bat urte sortu zen Txinan. Monje taoistentzat betikotasunaren ikurra dira. Bonsaien kultura hau orain 800 bat urte iritsi zen Japoniara. Suiseki hitza naturaren gauzaren edo paisaiaren bat irudikatzen duen harri txikiak izendatzeko erabiltzen dute.

Honetaz gain, gaur bertan Sergi Ramisek Japonia: erabiltzeko arauak (Japón: instrucciones de uso) hitzaldia eskainiko du gaztelaniaz, 19:30ean Topic-en. Sergi Ramis kazetaria, idazlea eta argitaratzailea da. Gaur egun, batez

ere, bidaia gidak egiten dituen Ediciones Ecos argitaletxean aritzen da. Saioa Kike Zinkunegik aurkeztuko du, eta bertan, Japoniara bidaiatzeko hainbat aholku ematen saiatuko da.

Bihar, aldiz, Rosa Maria Calafen txanda izango da. Calaf ere kazetaria da, eta era berean, zuzenbidean, Europar Instituzioetan eta Politika Zientzietan lizentziatua dago. TVE telebista katean berriemaile bezala aritu da urte askoan; 26 urteko karrera eta 93 herrialde baino gehiago bisitatu ditu berriemaile bezala. Gaur egun, akreditatutako atzerriar berriemaileak biltzen dituen Barzelonako Prentsako Nazioarteko

Zentroko lehendakaria da. Jesus Torquemadark aurkeztuko du hitzaldia.

Azken ekitaldiak larunbatean izango dira, hilak 9. Batetik, bi tailer izango dira, eta bestetik, Kenpo-Kai borroka artearen erakustaldia.

Lehen tailerra 10:00etan hasiko da, Topic-en. Shodo idazkera japoniarra ikasteko aukera izango da Honbu Kenpo-Kairen eskutik. Elkarte berak eskainiko du ere, bigarren tailerra, Ikebana lore artearena, hain zuzen. 11:30ean Topic-en izango da.

Bukartzeko, Kenpo-Kai borroka artearen erakustaldia 18:00etan izango da Zerkausian.



Bonsalak eta suisekiak larunbata arte egongo dira Topic-en. R. CALVO

### Agenda

#### DEIALDIK

- **Tolosa.** Gaur Eider Rodriguezen *Haragia* liburuaren aurkezpena Galtzaundi Euskara Taldearen eskutik, 19:30ean kultur etxean.
- **Anoeta.** Katxalin Elkarteak bularreko minbizia goiz detektatzeko hitzaldia eta bideoa eskainiko ditu, gaur, 18:00etan udal areto nagusian.
- **Tolosa.** Bihar 20:30ean, Koldo Ameztoui ipuin kontalariaren *Biribilketa* izeneko emanaldia 20:30ean kultur etxean Euskararenean barruan.
- **Amasa-Villabona.** Aizkardik mendi ibilaldia antolatatu du iganderako, hilak 10. Sodupe-Zugastieta ibilaldia egingo dute. Izena emateko 649 71 71 82 zenbakira deitu behar da, 20:00etatik 22:00etara, edo Aizkardiren egoitzara joan. Gaur da izena emateko azken eguna.
- **Asteasu.** Pagoetari bira emateko ibilaldia antolatatu du iganderako, hilak 10, Sagain mendi taldeak. Izena kiroldegian eman behar da eta gaur da azken eguna.
- **Tolosa.** Oargi mendi elkarteak irteera antolatatu du datoren astebururako. Aragoiko Pirinioetako bi mendate igoko dituzte: Cotiella (2.911 m) eta Peña Montañesa (2.191 m). Bihar arratsaldez irtengo dira Tolosatik, eta gauak Saravilloko aterpetxe batean emango dituzte. Izena emateko [info@oargi.org](mailto:info@oargi.org) edo [oargimendia@gmail.com](mailto:oargimendia@gmail.com) helbidean eman daiteke, edo 688 69 86 42 telefono zenbakira deituta. Izena ematerakoan partaide bakoitzak 20 euro sartu beharoko ditu Euskadiko Kutxako 3035 0028 11 0281141038 kontuan.

#### ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** *Boga Berria* emakume arraunlariei buruzko argazkiak Aranburu jauregian apirilaren 13a bitarte.
- **Tolosa.** *Colorin eta bere txontxongiloak* Topic-en ekaina bitarte. Aste egunetan 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik, eta asteburuetan, aldiz, 12:00etatik 14:00etara, eta 17:00etatik 20:00etara.

#### Farmaziak

#### GAUR

- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. Telefonoa: 943 65 46 10.
- **Lekunberri.** Azpiroz M.A. Aralar kalea, 43. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

#### Agurrak

**AGURRAK**  
943-65 56 95  
[tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

●●● **agurrak**



HITZAK harpidedun batentzat **sarrera pareta** du



Apirilak 9 • Larunbata • 20:00etan • Donostiako Ilunben

**LAGUN ARO GBC**  
Unicaja  
saskibaloit partida

sariak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira



sarrerak

HITZAK bi harpidedunentzat **sarrera pareta** du

Oinkari  
dantza taldearen  
**Ari du** ikuskizuna

Apirilak 15 • Ostirala • 22:30ean  
Tolosako Leidorren

